Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

174

EBAZPENA, 2009ko urriaren 23koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Cerámica Marlo SAri ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Armiñongo udalerrian (Araba) zeramika-adreiluak fabrika ditzan.

AURREKARIAK

2006ko abuztuaren 4an, Mª Luisa Martín Lozano andreak, Cerámica Marlo SA enpresaren izenean eta hau ordezkatuz Eusko Jaurlaritzako orduko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Armiñongo udalerrian (Araba) adreiluak fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera proiektuak Armiñongo hirigintza-plangintzarekin duen bateragarritasunari buruzko 2005eko abenduaren 21eko udaltxostena eta ondorengo agiri teknikoak bidali zituen sustatzaileak:

– Oinarrizko proiektua (2006ko uztaila).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko uztaila).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Cerámica Marlo SA enpresak, besteak beste, 1980ko ekainaren 18ko jarduera-lizentzia zuen. Baimen hori zeramika fabrikatzeko eman zuten. Halaber, enpresa sustatzaileak 2005eko ekainaren 8ko ibilgura isurtzeko zegozkion baimenak, 2005eko urriaren 11ko kogenerazioko unitateko jarduera-lizentzia, eta ondorengo handitze eta berritzeak zituen.

2006ko irailaren 11n, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki Armiñongo Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari kontsultatu zien.

2006ko azaroaren 24an eta 2007ko maiatzaren 25ean, ingurumen organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

174

RESOLUCIÓN de 23 de octubre de 2009, de la Viceconsejera de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la actividad de fabricación de ladrillos cerámicos, promovida por Cerámica Marlo, S.A. en el término municipal de Armiñón (Álava).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 4 de agosto de 2006, Dña. Mª Luisa Martín Lozano, en nombre y representación de Cerámica Marlo, S.A., solicitó ante el entonces Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de fabricación de ladrillos en el municipio de Armiñón (Álava). La solicitud se acompañaba del informe municipal relativo a la compatibilidad del proyecto con el planeamiento urbanístico de Armiñón, de fecha 21 de diciembre de 2005 y de la siguiente documentación técnica:

– Proyecto básico (julio de 2006).

– Resumen no técnico (julio de 2006).

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Cerámica Marlo, S.A. tenía, entre otras, licencia de actividad de fecha 18 de junio de 1980 para la actividad de fabricación de cerámica. Asimismo, la empresa promotora disponía de las correspondientes autorizaciones de vertido a cauce de 8 de junio de 2005, licencia de actividad de unidad de cogeneración de 11 de octubre de 2005, y posteriores ampliaciones y renovaciones.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 11 de septiembre de 2006 solicita informes a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que por el órgano ambiental se acuerde el trámite de información pública del proyecto, entre los que se encuentra el Ayuntamiento de Armiñón, el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y la Confederación Hidrográfica del Ebro.

Con fecha 24 de noviembre de 2006 y 25 de mayo de 2007, el órgano ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional.

Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Cerámica Marlo SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Ingurumeneko baimen bateratuko espedientea ebazteko dokumentazioa osatzeko, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak dokumentazio gehiago aurkezteko eskatu zuen 2008ko ekainaren 3an.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko irailaren 19an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Armiñongo Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

Beranduago, 2009ko martxoaren 10ean eta ekainaren 23an dokumentazio gehiago aurkezteko bi eskaera egin zitzaizkion sustatzaileari. Espedientea 2009ko ekainaren 30ean osatu zen.

2009ko uztailaren 20an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostena eskatu zion Ebroko Ur Konfederazioari.

2009ko irailaren 23an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Cerámica Marlo SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpenaren proposamena gehituz. Horren inguruan ez da jakinarazpenik jaso.

Azkenik, 2009ko urriaren 20an Ebroko Ur Konfederazioak hondakin-uren isurketaren onargarritasunari buruzko txostena igorri zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes maila altua helburutzat harturik, ku-

Por resolución de 14 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Cerámica Marlo, S.A. en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Álava, ambas con fecha de 3 de diciembre de 2007. Igualmente se procede al anuncio pertinente en dos periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha 2 de diciembre de 2007 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública se constata que no se han presentado alegaciones.

En orden a completar la documentación para la resolución del expediente de autorización ambiental integrada, la Dirección de Calidad Ambiental formula un nuevo requerimiento de documentación adicional el 3 de junio de 2008.

En aplicación de lo dispuesto en los artículos 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 19 de septiembre de 2008 informe al Ayuntamiento de Armiñón y al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, con el resultado que obra en el expediente.

Posteriormente, con fechas 10 de marzo y 23 de junio de 2009 se formulan dos nuevos requerimientos de documentación adicional al promotor, completándose el expediente el 30 de junio de 2009.

El 20 de julio de 2009, la Dirección de Calidad Ambiental solicitó informe a la Confederación Hidrográfica del Ebro.

Con fecha 23 de septiembre de 2009, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Cerámica Marlo, S.A. incorporando la propuesta de resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, sin que se hubiera recibido comunicación alguna al respecto.

Por último, con fecha 20 de octubre de 2009, la Confederación Hidrográfica del Ebro remite informe sobre la admisibilidad del vertido de aguas residuales.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control in-

tsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Cerámica Marlo SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; ibilgura isurtzeko baimena; eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu eta zuzentzeari dagozkionak. Era berean, beste administrazio eta erakunde eskudunek egindako txostenak aurkeztuko dituzte, espedientean parte hartzen dutela agerian utziz.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego

tegrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, se integran en la presente autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Cerámica Marlo, S.A. tales autorizaciones se circunscriben a la de producción de residuos peligrosos y no peligrosos, vertido a cauce y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica, y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que

bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Cerámica Marlo SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Armiñongo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen zeramikaren sektoreko 2007ko abuztuko BREF «Reference Document on the Best Available Techniques in the Ceramic Manufacturing Industry» txostenaren edukia hartu da kontuan. Horrez gain, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan aplikagarria da batez ere apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua. Honen bidez, Ontzien eta Ontzien Hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta gauzatzeko Erregelamendua onartzen da.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen proposamena sinatu eta Cerámica Marlo SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2009ko irailaren 23an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta

lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Cerámica Marlo, S.A. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Armiñón y del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

En orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por la legislación sectorial aplicable. En particular se ha considerado el contenido del documento BREF del sector cerámico, «Reference Document on the Best Available Techniques in the Ceramic Manufacturing Industry» de agosto de 2007, de la Comisión Europea. Además, en lo que se refiere a las normativas sectoriales, en este caso resulta de aplicación, en especial, el Real Decreto 782/1998, de 30 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 11/1997, de 24 de abril, de Envases y Residuos de Envases.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió propuesta de resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Cerámica Marlo, S.A.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, se ha cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

Considerando la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 23 de septiembre de 2009 del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de

Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Armiñongo udalerriko (Araba) Logroño-Vitoria errepideko 54. km-an duen eta IFK A 01048354 zenbakia duen Cerámica Marlo, SA enpresari zeramika-adreiluak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematea, Ebazpen honen Bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko «Labean erreta produktu zeramikoak fabrikatzeko instalazioak, bereziki teilak, adreiluak, erregogorrak, azulejuak, edo apaindurako edo etxerako produktu zeramikoak, eguneko 75 tona baino gehiago ekoizteko gaitasunarekin, eta/edo 4 m^3 baino gehiagoko labean erretzeko eta labeko 300 kg/m^3 baino gehiagoko karga-dentsitateko gaitasunarekin» izeneko 3.5 kategorian dago.

Zeramika-adreiluen fabrikazioa buztina ehotuz hasten da. Hasieran xehagailuan ehotzen da eta, ondoren, mailuzko errotan. Jarraian, buztin ehotua oragailura heltzen da. Bertan ura eransten zaio eta amaierako nahasketa umeldegira bideratzen da. Umeldegian nahasketa homogeneizatzen da.

Buztina moldekatu aurretik, buztin hori umeldegitik jasotzen da amaierako produkturako nahi ditugun ezaugarriak emango dizkioten lehengaiak eransteko. Oragailuan moldekatzen da eta bertan nahasketari hezetasuna eransten zaio ur eta ur-lurrun moduan.

Oragailutik datorren nahasketa, ebaki ondoren, aire bero bidez lehortzen da. Lehortu ondoren lortutako piezak egosketa-bagonetetara deskargatzen dira labean sartzeko. Labean piezak egosten dira material zeramiko iraunkor bihurtzeko.

Azkenik, zumizteko, paletizatzeko, etiketatzeko eta plastifikatzeko unitateetara bideratzen dira adreiluak kanpora atera aurretik.

Urtero 83.493 tona adreilu ekoizten dira. Horretarako, lehengai nagusi gisa zeramika-buztina erabiltzen bada ere, duela gutxi material osagarri hauek erantsi zituzten: harrobiko silize-hondarrak, zerrautsak eta paper-fabrikako lohiak.

Ekoizpen-prozesurako eta zerbitzu osagarritarako honako energia-baliabide hauek erabiltzen dira: gas naturala, gasolioa eta energia elektrikoa. Ekoizpen-prozesuan gas naturala erabiltzen da erregai nagusi gisa. Urtean 32.292.315 kWh kontsumitzen dira. Hala-

Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a Cerámica Marlo, S.A. con domicilio social en la carretera Logroño-Vitoria, km 54 del término municipal de Armiñón (Álava) y CIF: A 01048354, Autorización Ambiental Integrada para la actividad de fabricación de ladrillos cerámicos en el término municipal de Armiñón, con las condiciones establecidas en el apartado Segundo de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría 3.5 «Instalaciones para la fabricación de productos cerámicos mediante horneado, en particular tejas, ladrillos, refractarios, azulejos o productos cerámicos ornamentales o de uso doméstico, con una capacidad de producción superior a 75 toneladas por día, y/o una capacidad de horneado de más de 4 m^3 y más de 300 kg/m^3 de densidad de carga por horno» del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La fabricación de ladrillos cerámicos comienza con la molienda de la arcilla que se realiza inicialmente en el desmenuzador y, posteriormente en el molino de martillos. A continuación, la arcilla molida accede a la amasadora donde se le añade agua, de manera que la mezcla final se dirige al pudridero donde se produce la homogeneización de la misma.

Antes de producirse el moldeo de la arcilla, ésta se recoge del pudridero para añadirle las materias primas que conferirán las características deseadas al producto final. El moldeo se realiza en la galletera, donde se añade humedad a la mezcla en forma de agua y vapor de agua.

La mezcla procedente de la galletera, una vez cortada, se seca mediante aire caliente. Las piezas obtenidas del secado se descargan a las vagonetas de cocción para ser introducidas en el horno, en el que se produce la cocción de las mismas, para convertirlas en material cerámico perdurable.

Finalmente, los ladrillos se dirigen a la unidad de flejado, paletizado, etiquetado y plastificado para su expedición.

La producción anual de ladrillos asciende a 83.493 toneladas. Para ello, se emplea como materia prima principal la arcilla cerámica, sin embargo, recientemente se han incorporado como materias auxiliares los lodos de papelera, serrín y las arenas silíceas procedentes de cantera.

Los recursos energéticos empleados para el proceso productivo y servicios auxiliares son gas natural, gasoil y energía eléctrica. El combustible principal empleado en el proceso productivo es el gas natural, cuyo consumo anual asciende a 32.292.315 kWh.

ber, enpresako ibilgailuentzako eta harrobiko palarako A gasolioa erabiltzen da, eta industria-makinetarako (orgatila jasotzaileak, dunperrak, ehotze-pala, eta abar), berriz, B gasolioa. Urtero 80.000 litro gasolio inguru kontsumitzen dira. Bestalde, instalazioko zerbitzu orokorrek urtero energia elektrikoko 4.284.000 kWh kontsumitzen dituzte.

Zeramika-adreiluak fabrikatzean atmosferara egiten diren isurketak, batez ere egosketa-labearekin (3 foku), lehortze-prozesuarekin (2 foku) eta prozesuko galdara batekin lotzen dira.

Era berean, honako zona edo prozesu hauei lotutako isurtze barreiatuak sortzeko hainbat puntu daude: umeldegia, ehotzea, zinta bidez buztina garraiatzea eta zerrautsa gordetzeko eremua.

Bestalde, Cerámica Marlo SA enpresan sortutako hondakin-uren artean daude olio eta koipeen bereizgailu batean tratatzen diren konpresoreen purgatzeak. Bertako efluentea zisterna batean biltzen da buztina oratzeko prozesuan berriz erabiltzeko; olio-fasea, berriz, baimendutako kudeatzaile baten bitartez kudeatzen da. Halaber, lohi-biltegia ukitzen duten euri-urak bildu eta ekoizpen-prozesuan erabiltzen dira berriz; horregatik, oso euri-ur gutxi isurtzen da eta, ur horien ezaugarriak kontuan hartuta, garbi gisa sailkatzen dira. Azkenik, komunetako ur sanitarioak hobi septiko batean tratatzen dira. Ondoren, putzu xurgatzaile batera bideratzen dira lurrean iragazteko.

Sortutako hondakinei dagokienez, hondakin horiek batez ere mantentze-lanak bezalako eragiketa orokorretatik datoz.

Produktu zeramikoak fabrikatzeko Europako BREFean (2007ko abuztuko «Reference Document on Best Available Techniques in the Ceramic Manufacturing Industry») identifikatutako teknika erabilgarri onenen artean azpimarratuko ditugu egosketa-prozesutik datozen atmosfera isurtzeko kutsatzaileak sortzea ekiditeko oinarrizko teknikak, hala nola, NOx, SOx edo KOHak bezalako atmosferara substantzia kutsatzaileak isurtzea eragin dezaketen erregaien kontsumoa murriztea. Era berean, BREFean identifikatutako isurtze barreiatuak sortzea ekiditeko ia neurri guztiak dituzte: hauts-itxurako eragiketak kapsulan sartzea, nahasgailuetan hautsen isurketa kontrolatzea, garraiagailuak karenatzea, haizeko pantailak eta instalazioak behar bezala mantentzea.

Bigarrena.– Armiñongo udalerrian Cerámica Marlo SA enpresak sustatuta, zeramika-adreiluak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta betebeharrak ezartzea:

A. Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako titulua duen pertsonaren gainean

Asimismo, se emplea gasóleo A para los vehículos de empresa y la pala de cantera y gasóleo B para las máquinas industriales (carretillas elevadoras, dúmperes, pala de molienda, etc.). El consumo anual de gasoil, asciende aproximadamente a 80.000 litros. Por otro lado, el consumo anual de energía eléctrica, empleada en los servicios generales de la instalación, es de 4.284.000 kWh.

Las emisiones atmosféricas producidas por la fabricación de ladrillos cerámicos se asocian, principalmente al horno de cocción (3 focos), al proceso de secado (2 focos) y a una caldera de proceso.

Asimismo, existen varios puntos de generación de emisiones difusas asociados a las siguientes zonas o procesos: el pudridero, la molienda, el transporte de arcilla por cinta, y la zona de almacenamiento de serrín.

Por otro lado, entre las aguas residuales generadas en Cerámica Marlo, S.A. se encuentran las purgas de compresores que se tratan en un separador de aceites y grasas, cuyo efluente se recoge en una cisterna para reutilizarlo en el proceso de amasado de la arcilla, mientras que la fase aceitosa se gestiona a través de gestor autorizado. Asimismo, las aguas pluviales que entran en contacto con el depósito de lodos, son recogidas y reutilizadas en el proceso productivo, por lo que las aguas pluviales vertidas son mínimas y, en base a la caracterización de las mismas, se consideran limpias. Finalmente, las aguas sanitarias procedentes de los aseos son tratadas en una fosa séptica, tras lo cual se dirigen a un pozo absorbente para su infiltración a terreno.

En cuanto a los residuos generados, éstos proceden, principalmente, de operaciones generales como mantenimiento.

Entre las Mejores Técnicas Disponibles identificadas en el BREF europeo de la fabricación de productos cerámicos («Reference Document on Best Available Techniques in the Ceramic Manufacturing Industry» de agosto de 2007), destacan las técnicas primarias para evitar la generación de contaminantes a la atmósfera provenientes del proceso de cocción, como la reducción del consumo de combustibles que puedan derivar en la emisión de sustancias contaminantes a la atmósfera como NOx, SOx o COVs. Asimismo, se dispone de casi todas las medidas para evitar la generación de emisiones difusas identificadas en el BREF: encapsulamiento de operaciones pulverulentas, control de la emisión de polvos en las mezcladoras, carenado de transportadores, mantenimiento adecuado de las instalaciones y pantallas de viento.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la actividad de fabricación de ladrillos cerámicos, promovido por Cerámica Marlo, S.A. en el término municipal de Armiñón:

A. Cerámica Marlo, S.A. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los

Ingurumeneko Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Cerámica Marlo SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

B. Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Hondakinak jaso, ikuskatu eta biltegiratzeko baldintzak eta kontrolak.

a) Ondorengo taulan zehaztuko diren otsailaren 8ko MAM/304/2002 Agindu bidez argitaratutako hondakinen Zerrenda Europarrean sartutako hondakinak kudeatu ahal izango dira bakarrik:

Hondakin-mota	EHZ kodea
Paper-fabrikako lohiak	030311
Zeramika-buztinak	010409
Zerrautsa	030105

b) Baimenaren helburu diren hondakin ezarriskutsuak onartu aurretik, hondakin horiek onartzen dituztela frogatzen duen agiria igorriko zaio hondakinen titularrari. Agiri horretan onarpena zein baldintzetan egiten den zehaztuko dute. Agiri horren kopia Ingurumen Sailburuordetzara igorriko da.

Partida bakoitza jaso aurretik baldintza horiek bete direla egiaztatu beharko da.

c) Agiri-erregistro bat osatu beharko da. Bertan honako alderdi hauek zehaztuko dira, gutxienez:

1.– Onartu eta balioztatutako hondakinen (hileroko laburpena) alderdi hauek:

– Onartutako eta kudeatutako hondakinen jatorria eta kantitatea, hezetasun-ehunekoa barne hartuta.

– Hondakinaren jatorria eta zein prozesutatik datorren.

– Hondakina sortu duen enpresa.

– Hondakina garraiatzen duen enpresa.

2.– Baztertutako hondakinen (denbora errealean + hileroko laburpena) alderdi hauek:

– Onarpen-irizpideak ez betetzeagatik baztertutako hondakinen kantitatea.

– Baztertutako hondakina ekoiztu duen enpresa.

– Hondakina baztertzeko arrazoia.

– Baztertutako hondakinaren bukaerako helburua.

– Beste hainbat gertakari.

d) Erregistro horren kopia igorri beharko da ingurumen-organo honetara sei hilero (bi alditan zatituta, urtarriletik ekainera eta uztailetik abendura).

datos facilitados respecto al titulado superior responsable de las relaciones con la Administración.

B. Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

B.1.– Condiciones y controles para la recepción, inspección y almacenamiento de residuos.

a) Únicamente podrán ser objeto de gestión los residuos incluidos en la Lista Europea de residuos publicada mediante la Orden MAM/304/2002, de 8 de febrero, especificados en la siguiente tabla:

Tipo de residuo	Código LER
Lodos de papelera	030311
Arcillas cerámicas	010409
Serrín	030105

b) Con carácter previo a la aceptación de los residuos no peligrosos objeto de la autorización, se remitirá al titular de los residuos documento acreditativo de la aceptación de los mismos, en el que se detallen las condiciones de dicha aceptación. Se enviará copia de este documento a la Viceconsejería de Medio Ambiente.

El cumplimiento de estas condiciones deberá comprobarse con anterioridad a la recepción de cada partida.

c) Deberá llevar un registro documental en el que se especifiquen como mínimo los siguientes aspectos:

1.– De los residuos aceptados y gestionados (resumen mensual):

– Naturaleza y cantidad de residuos aceptados y gestionados, incluyendo porcentaje de humedad.

– Origen y proceso del que procede el residuo.

– Empresa generadora del residuo.

– Empresa transportista del residuo.

2.– De los residuos rechazados (en tiempo real + resumen mensual):

– Cantidad de residuos rechazados por incumplir criterios de aceptación.

– Empresa productora del residuo rechazado.

– Causa del rechazo del residuo.

– Destino final del residuo rechazado.

– Otras incidencias.

d) Deberá remitirse a este órgano ambiental copia del mencionado registro con periodicidad semestral (dividido en dos periodos, de enero a junio y de julio a diciembre).

B.2.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.2.1.– Baldintza orokorrak.

Cerámica Marlo, SA instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala eraiki, ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.2.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Cerámica Marlo, SA enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

B.2.– Condiciones para la protección de la calidad del aire.

B.2.1.– Condiciones generales.

La planta Cerámica Marlo, S.A. se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los valores límite de emisión establecidos en esta Resolución.

Toda emisión de contaminantes a la atmósfera generada en el proceso deberá ser captada y evacuada al exterior por medio de conductos apropiados previo paso, en su caso, por un sistema de depuración de gases diseñado conforme a las características de dichas emisiones. Podrán exceptuarse de esta norma general aquellas emisiones no confinadas cuya captación sea técnica y/o económicamente inviable o bien cuando se demuestre la escasa incidencia de las mismas en el medio.

Se tomarán las disposiciones apropiadas para reducir la probabilidad de emisiones accidentales y para que los efluentes correspondientes no presenten peligro para la salud humana y seguridad pública. Las instalaciones de tratamiento de los efluentes gaseosos deberán ser construidas, explotadas y mantenidas de forma que hagan frente eficazmente a las variaciones debidas a la temperatura y composición de los efluentes. Asimismo se deberán reducir al mínimo la duración de los periodos de disfuncionamiento e indisponibilidad.

B.2.2.– Identificación de los focos. Catalogación.

La instalación de Cerámica Marlo, S.A. cuenta con los siguientes focos, catalogados de acuerdo con la normativa vigente en materia de protección de la atmósfera:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametro baliokidea (m)	Taldea	UTM koodernatuak	
						X	Y
1	1006411-01	Labeko errekuperazio-tximinia	10,3	1,69	B	521146	4728473
2	1006411-02	Labeko keen tximinia	12	1,25	B	521166	4728540
3	1006411-03	Labeko bobeda eraузteko tximinia	8	0,77	B	521161	4728535
4	1006411-04	Lehortegia (1. tximinia)	8,6	1,15	B	521170	4728507
5	1006411-05	Lehortegia (2. tximinia)	8,6	1,15	B	521175	4728507
6	1006411-06	Lurrun-galdara	8,8	0,25	C	521194	4728556

N.º foco	*Código foco*	*Denominación foco*	*Altura (m)*	*Diámetro equivalente (m)*	*Grupo*	*Coordenadas UTM*	
						X	*Y*
1	*1006411-01*	*Chimenea de recuperación del horno*	*10,3*	*1,69*	*B*	*521146*	*4728473*
2	*1006411-02*	*Chimenea de humos del horno*	*12*	*1,25*	*B*	*521166*	*4728540*
3	*1006411-03*	*Chimenea de extracción de bóveda del horno*	*8*	*0,77*	*B*	*521161*	*4728535*
4	*1006411-04*	*Secadero (chimenea 1)*	*8,6*	*1,15*	*B*	*521170*	*4728507*
5	*1006411-05*	*Secadero (chimenea 2)*	*8,6*	*1,15*	*B*	*521175*	*4728507*
6	*1006411-06*	*Caldera de vapor*	*8,8*	*0,25*	*C*	*521194*	*4728556*

Gainera umeldegian hautsezko isurtze barreiatuak sortzen dira, bai eta buztina ehotzeko, zinta bidez materialak garraiatzeko eta zerrautsa gordetzeko prozesuetan ere.

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak.
1, 2 eta 3	1006411-01 1006411-02 1006411-03	Labeko errekuperazio-tximinia Labeko keen tximinia Labeko bobedatik erauzteko tximinia	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
			CO	615 mg/Nm^3
			NOx	250 mg/Nm^3
			SO2	500 mg/Nm^3
			HCl gisako kloruroak	30 mg/Nm^3
			HF gisako fluoruroak	10 mg/Nm^3
4 eta 5	1006411-04 1006411-05	Lehortegia (1. tximinia) Lehortegia (2. tximinia)	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
			CO	615 mg/Nm^3
			NOx	250 mg/Nm^3
			SO2	500 mg/Nm^3
			HCl gisako kloruroak	30 mg/Nm^3
			HF gisako fluoruroak	10 mg/Nm^3
6	1006411-06	Lurrun-galdara	CO	500 ppm
			NOx	250 mg/Nm^3

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-

Además se generan emisiones difusas de polvo en el pudridero, así como en los procesos de molienda de arcilla, transporte de materiales por cinta y almacenamiento de serrín.

B.2.3.– Valores límite de emisión.

La planta se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los siguientes valores límite de emisión:

N.º foco	*Código foco*	*Denominación foco*	*Sustancias*	*Valores límite de emisión*
1, 2 y 3	*1006411-01* *1006411-02* *1006411-03*	*Chimenea de recuperación del horno* *Chimenea de humos del horno* *Chimenea de extracción de la bóveda del horno*	*Partículas totales*	*20 mg/Nm^3*
			CO	*615 mg/Nm^3*
			NOx	*250 mg/Nm^3*
			SO2	*500 mg/Nm^3*
			Cloruros como HCl	*30 mg/Nm^3*
			Fluoruros como HF	*10 mg/Nm^3*
4 y 5	*1006411-04* *1006411-05*	*Secadero (chimenea 1)* *Secadero (chimenea 2)*	*Partículas totales*	*20 mg/Nm^3*
			CO	*615 mg/Nm^3*
			NOx	*250 mg/Nm^3*
			SO2	*500 mg/Nm^3*
			Cloruros como HCl	*30 mg/Nm^3*
			Fluoruros como HF	*10 mg/Nm^3*
6	*1006411-06*	*Caldera de vapor*	*CO*	*500 ppm*
			NOx	*250 mg/Nm^3*

Los valores límite de emisión están referidos a las siguientes condiciones: 273 K de temperatura, 101,3 kPa de presión y gas seco.

Los parámetros medidos no superarán los valores límite de emisión en inspecciones periódicas reglamentarias (tres medidas de una hora cada una, como mínimo) medidos a lo largo de ocho horas. Se admi-

tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.2.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.2.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek, Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Agindua, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntura sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurtze barreiatuak txikitzeko helburuarekin umeldegian eta kanpoaldean soltean gordetzeko gainerako guneetan haizeko pantailak ezarriko dira. Halaber, honako neurriak hartuko dira:

– Hauts-itxurako eragiketak kapsulan sartzea: buztina kamera itxi batean ehotuko da.

– Hautsen kontrola nahasgailuetan: nahasgailua nabe baten barruan dago.

– Garraiagailuak karenatzea: buztina umeldegira garraiatzea eta berriz erabiltzeko materialak barruan garraiatzea karenatuak daude.

– Instalazioen mantentze egokia.

B.3.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.3.1.– Isurketen jatorria eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera-mota nagusia: Adreiluen, teilen eta eraikuntzarako lur egosizko produktuen fabrikazioa.

tirá como tolerancia de medición que puedan superar en el 25% de los casos en una cuantía que no exceda del 40%. De rebasarse esta tolerancia, el periodo de mediciones se prolongará durante una semana, admitiéndose, como tolerancia global de este periodo, que puedan superarse los niveles máximos admisibles en el 6% de los casos en una cuantía que no exceda el 25%. Estas tolerancias se entienden sin perjuicio de que en ningún momento los niveles de inmisión en la zona de influencia del foco emisor superen los valores higiénicamente admisibles.

B.2.4.– Sistemas de captación y evacuación de gases.

Las chimeneas de evacuación de los gases residuales de los focos alcanzarán una cota de coronación, no inferior a la establecida en el apartado B.2.2. Las chimeneas dispondrán de los medios necesarios para el cumplimiento de las condiciones exigidas en la Orden del Ministerio de Industria, de 18 de octubre de 1976, sobre prevención y corrección de la contaminación atmosférica de origen industrial permitiendo, entre otros, accesos seguros y fáciles a los puntos de toma de muestras.

En particular, en lo que se refiere a la localización y características de los orificios previstos para la toma de muestras, las distancias del punto de muestreo a cualquier perturbación del flujo gaseoso antes del punto de medida según la dirección del flujo y dirección contraria (parámetros L1 y L2) deberán ajustarse a lo dispuesto en el anejo III de la Orden de 18 de octubre de 1976.

Para los focos en los que no se cumplan las distancias de L1 ≥ 8D y L2 ≥ 2D, nunca se admitirán valores de L1 < 2D y L2 < 0,5D. En estos casos, se exigirá que en el informe de mediciones se justifique la validez del plano de muestreo.

Con objeto de minimizar las emisiones difusas se dispondrá de pantallas de viento en el pudridero y el resto de zonas de almacenamiento de graneles a la intemperie, así como de las siguientes medidas:

– Encapsulamiento de operaciones pulverulentas: la molienda de arcilla se lleva a cabo en una cámara confinada.

– Control de polvos en los mezcladores: la mezcladora se encuentra en el interior de una nave.

– Carenado de transportadores: el transporte de la arcilla al pudridero y el transporte interno de los materiales para su reutilización se encuentran carenados.

– Mantenimiento adecuado de las instalaciones.

B.3.– Condiciones para el vertido a cauce.

B.3.1.– Origen y localización de los vertidos.

Tipo de actividad principal generadora del vertido: Fabricación de ladrillos, tejas y productos de tierras cocidas para la construcción.

Jarduera-taldea: eraikuntzako materialak.

Mota-taldea-EJSN: 2-10-26.40.

Grupo de actividad: materiales de construcción.

Clase-grupo-CNAE: 2-10-26.40.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	UTM koodernatuak
1	Ur sanitarioak	Komunak eta dutxak	Lurzoruan iragaztea	Zadorra ibaia	I	X: 510.110 Y: 4.727.011

Punto de vertido	*Tipo de aguas residuales*	*Procedencia del vertido*	*Medio receptor*	*Cuenca hidrográfica*	*Categoría medio receptor*	*Coordenadas UTM*
1	*Aguas sanitarias*	*Servicios y duchas*	*Infiltración a terreno*	*Río Zadorra*	*I*	*X: 510.110* *Y: 4.727.011*

B.3.2.– Gehienez isur daitezkeen ur sanitarioen emariak eta bolumenak.

Eguneko bolumena	1 m^3
Urteko gehienezko bolumena	156 m^3

B.3.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ondorengo zerrendan ageri dira isurketen kutsaduraren parametroen ezaugarri nagusiak, bakoitzarentzat ezarritako muga-balioekin:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	6 - 9
Solido esekiak	<80 mg/l
DBO5	<40 mg/l
DQO	<160 mg/l
Olioak eta koipeak	<10 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

